



Memoriaren jolasa

FITXA
19

Helburuak

- ELIKAGAI BEGETALEN AHORAKINA HANDITZEA.
- ELIKAGAI-BARIETATE BERRIAK EZAGUTZEA.
- GURE OHIKO ELIKADURAREN PARTE EZ DIREN ELIKAGAIK PROBATZERA BULTZATZEA.

Ikastaroak eta arloak/Eremuak/Materiak _____

Lehen Hezkuntzako 4. mailatik 6. mailara:

Natura-zientziak.

- Jokabide osasungarriak. Elikadura osasungarri eta orekatua.

Gaitasun artistikoa.

- Hizkuntza plastikoaren eta bisualaren erabilera.

Gomendatutako adina _____

9-12 urteko ikasleak.

Jardueraren deskribapena/Metodologia _____

Bi kartulina prestatuko ditugu jarduerako fruta eta barazki irudi bakoitzerako, memoria-jolas tradizional bat proposatzeko: kartulinak ahoz behera jarri eta bikoteak asmatzen saiatuko gara.

Kartulinak jarduera plastiko egokitu gisa presta daitezke (ikasleek ebakitako edo egindako marrazkiak edo argazkiak), adinaren arabera.

Elkartu beharreko bikoteek gure etxeetan oso ohikoak ez diren elikagai begetalak dituzte. Adibidez: txirimoia, marakuia, datilak, makadamia intxaurreak, meloi frantsesak, mugurdiak, mahats-pasak...

Egokiena da ikasleak berak ikertzea beste kultura batzuetako sukaldaritzaren eraginez sartzen ari diren fruta eta barazkiei buruz, edo bere inguruko tradizionalenak bilatzea, sormena garatzeko. Familiarekin egindako erosketan, ikusitako elikagai berriak sartzera animatuko ditugu ikasleak, elikagai horietara ohitu daitezten. Jolasean sartu beharreko barazkiak aukeratzeko, bateratze-lana proposa daiteke.

Amaitzeko, askari/hamaiketako txiki bat presta daiteke memoria-jolaseko elikagaiekin; kasu horretan, saioaren aurretik aukeratu beharko dira elikagaiak.

Aniztasunari erantzuteko, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak (HLBP) dituzten ikasleentzat beharrezko giza baliabideak edukiko dira (PT, hezitzailea, logopeda), eta irakasleek, tutoreek edo ikasle laguntzaileek aktiboki lagunduko diete, premia zehatzen arabera.

Jarduera egin aurretik, ikasleen elikadura-alergiak kontsultatuko dira.



Aukeratu
osasuntsu jatea
Zu irabazle!



Elige
comer sano
¡Tú ganas!

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Egutegi eredu/Iraupena

Saio bat (45 minutu), askaria/hamaiketako sartu gabe.

Jarduera-eremua

Eskolako jangela Ikasgela Etxea Beste bat

Beharrezko baliabideak

Giza baliabideak:

Irakaslea.

Materialak:

Tamaina berdineko kartulinekin egindako kartak.

Kartulinetako elikagai batzuk (dastatzeko).

Ebaluazio-metodoa/Adierazleak

Ebaluazio jarraieren bidez, ondorengo hau baloratuko da:

- Ikasleekin aktiboki parte hartu duten jolasean.
- Ikasleek meriendako elikagaiak probatu/jan dituzten.

Informazio gehiagorako (aurretiazko esperientziak, material lagungarria, bibliografia...)

Material lagungarria:

- https://ecohuertosescolares.eu/sites/default/files/unidad_d_huerto_escolar_0.pdf. 83 or.

Bibliografia:

- C Reverdy, F Chesnel, P Schlich, EP Köster, C Lange. Effect of sensory education on willingness to taste novel food in children. *Appetite*. [Internet]. Francia: ELSEVIER, 2008 [revisado 2008 Ene 25, citado 2019 Feb 19]; 51(1): Pag. 156-165. Disponible en: <https://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed/18342395>
- Folkvord F, Anastasiadou DT, Anschütz D. Memorizing fruit: The effect of a fruit memory-game on children's fruit intake. *Prev Med Rep*. 2016; 10;5:106-111.

